

NIKOTINA ASKA DEZAKETEN GAILUEN PUBLIZITATEA, SUSTAPENA, BANAKETA, SALMENTA ETA KONTSUMOA MUGATZEKO NEURRIAK

42. artikulua.– Publizitatea.

Debekatuta dago nikotina aska dezaketen gailuen publizitate guztia, kasu hauetan izan ezik:

1.– Produktu hauen merkataritzan parte hartzen duten profesionalentzat bakarrik diren argitalpenetan.

2.– Europar Batasuna osatzen duten herrialdeetatik kanpo argitaratu edo inprimatu diren eta produktu horien publizitatea daukaten argitalpenetan, baldin eta argitalpen horiek ez badira nagusiki Europar Batasuneko merkaturako eginak. Edonola ere, halako publizitatea debekatuta egongo da argitalpenak batez ere adingabeentzat baldin badira.

43. artikulua.– Sustapena.

1.– Debekatuta egongo da nikotina aska dezaketen gailuak babestea eta haien beste edozein motatako sustapena egitea bitarteko eta euskarri guztietan, baita makina automatikoetan eta informazioaren gizartearen zerbitzuetan ere. Debeku honetatik salbuesten dira nikotina aska dezaketen gailuak merkaturatzen diren establezimenduetan egindakoak, betiere adingabeei zuzentzen ez badira eta ez bada produktuaren doako banaketarik egiten.

2.– Debekatuta egongo da zuzenean edo zeharka produktu horiek sustatu nahi dituzten jarduerak edo produktuen, ondasunen edo zerbitzuen doako edo sustapenezko banaketa, produktu horiek saltzen diren saltokien sarean izan ezik.

44. artikulua.– Publizitatea hedabideetan.

Euskadin kokatutako eta bertan egindako telebista-programetan, aurkezleak, elkarrizketatuak, kolaboratzaileak edo gonbidatuak ezingo dira nikotina aska dezaketen gailuak erabiltzen agertu, ez eta salgai horien markak, izen komertzialak, logotipoak zein produktu horiek identifikatzeko edo gogora ekartzeko balio duten bestelako zeinuak bistan direla ere.

45. artikulua.– Publizitatea egiteko bestelako erak.

1.– Debekatuta egongo da dena delako markak, gauzakiak edo produktuak, duen izenagatik, erabilitako hitzengatik, grafismoagatik, aurkezteko moduagatik edo beste arrazoiren batengatik, zeharka edo erdi ezkutuan nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea, produktu horiek saltzen diren establezimenduetan izan ezik.

2.– Ezin izango da zabaldu gailu horiek tabakoren kontsumoa ordezteko metodoa direnik, ezta kalterik sortzen ez dutenik eta osasunarentzat arriskurik ez dutenik ere.

3.– Debekatuta egongo da nikotina aska dezaketen gailuen publizitatea egitea hezkuntzako edo gizarteko ekitaldietan edo haiek babestekoetan; debeku bera egongo da lehiaketen, zozketen eta kontsumoa eragiteko antzeko beste jardueren bidez egindako sustapenetan ere.